## ZER DA **ITUNA?**

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak bultzatutako ekimena da, komunitate bat eraikitzeko helburuarekin, zeinak lankidetzan oinarrituta mendekotasuna prebenitzen eta autonomia pertsonala sustatzen duen bizitza-ziklo osoan zehar.

Itun hau ez da programa itxi bat, baizik eta prozesu ireki bat, ikuspegi eraldatzaile honi atxikitako gizarte-erakundeentzat, erakunde publikoentzat, profesionalen kolektiboentzat eta herritarrentzat.

## ¿QUÉ ES **EL PACTO?**

Es una iniciativa impulsada por el Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia para construir, de forma colaborativa, una comunidad que previene la dependencia y promueve la autonomía personal a lo largo del ciclo vital.

Este Pacto no es un programa cerrado, sino un proceso abierto a entidades sociales, instituciones públicas, colectivos profesionales y ciudadanía comprometida con este enfoque.



## ZER SUPOSATZEN DU **ITUNAREKIN** BAT EGITEAK?

Itunarekin bat egiten duten erakundeek:

- Filosofia eta lan-ikuspegi honetarako duten konpromisoa ikusarazten dute.
- Etorkizuneko plataforma digital batean beren praktika onak partekatu ahal izango dituzte.
- Konpromiso zehatzak ezartzen dituzte eta horien eragina nola ebaluatuko duten definitzen dute.
- Eskualde- eta lurralde-mailako lan-sare batean parte hartzen dute.

## ¿QUÉ SUPONE ADHERIRSE **AL PACTO?**

Las entidades que se adhieran:

- Visibilizan su compromiso con esta filosofía y enfoque de trabajo.
- Pueden compartir sus buenas prácticas en una futura plataforma digital.
- Establecen compromisos concretos y definen cómo evaluarán su impacto.
- Participan en una red comarcal y territorial de trabajo conjunto.

## **ITUNARI** GEHITZA

## ADHESIÓN **AL PACTO**

# KOMUNITATEAN MENDEKOTASUNA PREBENITZEKO ETA AUTONOMIA PERTSONALA SUSTATZEKO BIZKAIKO **ITUNA**

# **PACTO** POR LA PREVENCIÓN DE LA DEPENDENCIA Y LA PROMOCIÓN DE LA AUTONOMÍA PERSONAL EN COMUNIDAD DE BIZKAIA

Bizkaia



## ITUNAREN HELBURUAK

- Mendekotasunaren inguruko ikuspegi prebentibo eta komunitarioa sustatzea.
- Lurraldean dagoeneko martxan dauden ekimenak balioan jartzea.
- Atxikitako erakundeek konpromiso zehatz eta neurgarriak hartzea.
- Lankidetza interinstituzional, intersektorial eta diziplina anitzeko sare sendo bat eraikitzea.

## OBJETIVOS DEL PACTO

- Promover una visión preventiva y comunitaria en torno a la dependencia.
- Poner en valor las iniciativas que ya existen en el territorio.
- Generar compromisos concretos y medibles por parte de las entidades adheridas.
- Construir una red sólida de colaboración interinstitucional, intersectorial e interdisciplinar.

## ARDATZ ESTRATEGIKOAK

## EJES ESTRATÉGICOS

### 1. IKUSPEGI PREBENTIBO ETA TRANSBERTSALA

Bizkaiko pertsonen bizi-kalitatean eragiteko gaitasuna duen ikuspegi prebentibo transbertsalean sinesten dugu, lurraldean abiarazten diren politika, estrategia eta ekimen guztietan agente eta erakunde ezberdinekin lankidetzan.

### 1. ENFOQUE PREVENTIVO TRANSVERSAL

Creemos en el impacto sobre la calidad de vida de las personas de Bizkaia en colaboración con los diferentes agentes e instituciones a través de un enfoque preventivo transversal en todas aquellas políticas, estrategias e iniciativas que se pongan en marcha en el territorio.

### 2. LANKIDETZA, KOMUNIKAZIOA ETA KOORDINAZIOA

Autonomia pertsonala sustatzeko eta mendekotasuna prebenitzeko ekimenak abiarazi eta garatzeko lankidetza-, komunikazio- eta koordinazio-guneetan sinesten dugu.

### 2. COLABORACIÓN, COMUNICACIÓN Y COORDINACIÓN

Creemos en espacios de colaboración, comunicación y coordinación para la puesta en marcha y desarrollo de iniciativas para la mejora de la promoción de la autonomía y prevención de la dependencia.

### 3. EZAGUTZA SORTU, PARTEKATU ETA ZABALTZEA

Autonomia pertsonala komunitatean sustatzeari buruzko ezagutza sortzearen eta zabaltzearen garrantzian sinesten dugu, ebidentzietan oinarritutako jarduerak eta ebaluazioak babesteko.

### 3. GENERAR, COMPARTIR Y DISEMINAR CONOCIMIENTO

Creemos en la importancia de generar y diseminar conocimiento en torno a la promoción de la autonomía personal en comunidad, para apoyar las actuaciones y evaluaciones basadas en evidencias.

### 4. INPLIKAZIOA ETA ERANTZUKIZUN PARTEKATUA

Osasuna (emozionala, fisikoa eta soziala), epe luzerako arreta eta eguneroko bizitzarako laguntzak ikuspegi prebentibotik integratzea interesgarria iruditzen zaigu, administrazio publikoen eta herritarren arteko inplikazio, erantzukizun partekatu eta lankidetzaren bidez.

### 4. IMPLICACIÓN Y RESPONSABILIDAD COMPARTIDA

Nos parece interesante, Integrar la salud (emocional, física y social), la atención a largo plazo, los apoyos para la vida diaria desde una perspectiva preventiva con la implicación, responsabilidad compartida y colaboración entre las AA.PP. y la ciudadanía.

### 5. BERDINTASUNA, GENERO IKUSPEGIA ETA ANIZTASUNA

Aniztasunarekiko errespetuak eta genero ikuspegiak ulertzen laguntzen dute nola autonomiaren eta mendekotasunaren esperientziak egitura-desberdintasunen arabera baldintzatzen diren. Bizitza-zikloa, adina, generoa, egoera sozioekonomikoa, desgaitasuna edo jatorri kulturala eta/edo sinesmenak dimentsioak dira, eta ibilbide eta erronka ezberdinak eragiten dituzte, zeinak kontuan hartu behar diren justizia sozialaren logikatik.

### 5. IGUALDAD, PERSPECTIVA DE GÉNERO Y DIVERSIDAD

El respeto a la diversidad y el enfoque de género permiten comprender cómo las experiencias de autonomía y dependencia están atravesadas por desigualdades estructurales. El ciclo vital, la edad, el género, la situación socioeconómica, la discapacidad o el origen cultural y/o creencias son dimensiones que configuran distintos itinerarios y retos, que deben ser tenidos en cuenta desde una lógica de justicia social.

### 6. GOBERNANTZA PARTEKATUA ETA JARRAIPENA

Gobernantza-eredu ireki, parte-hartzaile eta pluralean sinesten dugu, erakundeen, herritarren, gizarte-erakundeen eta esparru akademikoaren arteko lankidetza sustatzen duena. Itunak denboran iraunkorrak diren egiturak sortu nahi ditu, konpromisotik ekintzara aurrera egiteko aukera emateko. Gobernantza irekia, partekatu eta parte-hartzailea aukera ona da kontsentsuak eraikitzeko, elkarrekin ikasteko eta ahaleginak koordinatzeko. Jarraipenaren logikan pentsatzea da lan egiteko modu iraunkorrak imajinatzea, agintaldi instituzionaletatik edo programa puntualetatik harago mantendu daitezkeenak, egitura eta aliantzek konpromisoari egonkortasuna emateko.

### 6. GOBERNANZA COLABORATIVA Y CONTINUIDAD

Creemos en un modelo de gobernanza abierto, participativo y plural, que promueva la cooperación entre instituciones, ciudadanía, organizaciones sociales y el ámbito académico. El Pacto busca generar estructuras sostenibles en el tiempo, que permitan avanzar desde el compromiso hacia la acción. Una gobernanza abierta, participativa y compartida ofrece oportunidades para construir consensos, aprender mutuamente y coordinar esfuerzos. Pensar en clave de continuidad implica imaginar formas de trabajo sostenibles que puedan mantenerse más allá de mandatos institucionales o programas puntuales, con estructuras y alianzas que den estabilidad al compromiso.